

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

4/2025 Foru Agindua urtarrilaren 14koa. Lehia askeko araubidean dauden irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei zuzendutako dirulaguntzen deialdia onartzea, Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren esparruko 2025eko ekitaldiko ekintzak finantzatzeko

Otsailaren 15eko 3/2024 Euskal Lege berriak, Lankidetzarako eta Elkartasunerakoak, zioen azalpenetik bertatik, giza eskubideen defendatzaileen egoera salatzen du: “herrialde askotan, eremu demokratikoa gero eta txikiagoa da, eta horrek mugatu egiten du herritarrek eta erakunde sozialek gizarte demokratikoagoak eraikitzeko duten funtsezko eginkizuna; testuinguru horietan, giza eskubideen alde egiten duten pertsonak, komunitateak, erakundeak eta sareak askotariko mehatxuak, kriminalizazio-egoerak eta jazarpina jasaten ari direla egiaztatu da”; 19. artikuluan xedatzen duenez, “giza eskubideak sustatzen laguntzeko eta eskubide horiek aldeztu dituzten pertsonen, erakundeen eta sareen laguntzeko, euskal administrazio publikoek komunikazioa, posizionamendu publikoa eta eragina helburu duten jarduketak egin ahal izango dituzte”.

Lege horren laugarren artikuluan, helburuen artean, hau ageri da: “bereziki hegoaldeko gizataldeetan txirotasuna eta bazterkeria eragiten dituzten egiturazko arazoak eraldatzeko ekarpena egitea eta giza garapena eta jasangarritasuna sustatzea...”; horrez gain, hau xedatzen da berariaz: “giza eskubideen nazioarteko testuinguruan, justizia globala sustatzea” eta “gizarte askeak, demokratikoak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea eta herrien arteko bizikidetzaren globala bultzatzea. Helburu hori lortzeko, giza eskubideen defentsan eta horien aplikazioaren agendan, gobernantza demokratikoan, bakearen eraikuntzan eta herritartasun aktibo eta konprometitur sakonduko da”.

Azkenik, 6. artikuluan, lehentasunezko ikuspegi buruzkoan, hau nabarmentzen da: “giza eskubideen ikuspegia, eskubide –indibidualen edo kolektiboen– zibil, politiko, ekonomiko, sozial, kulturalen eta ingurumeneko izaera integrala aitortzen baitu. Giza eskubideen aldeko nazioarteko konpromisoek indarrean dirautela aldarrikatzen du, eta eskubideen, betebeharren eta erantzukizunen titularren funtsezko eginkizuna indartzen duten estrategiei helden die”.

2004an argitaratu eta 2008an berrikusi ziren Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Europar Batasunaren Jarraibideek bezala, Eusko Legebiltzarrak berak, giza eskubideen defendatzaileen aldeko adierazpen instituzionalean (2018), defendatzaileak babesteko eta aintzatezteko erantzukizunari eta eginkizunei dei egiten die, eta horiek betetzeko dei berezia egiten du. Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, “Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa” abiarazi zuen.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak ESKUTIK 2022/2025 esparru dokumentua dauka lankidetzaren eta elkartasuneko politika publikorako. Dokumentu horren helburua da jardun esparru garbia ezartzea, 2030 Agenda Berria eta Garapen Jasangarriaren Helburuetan ezarri diren nazioarteko egungo erronkei eta esparruei egokitu, eta esparru horri erantzea lankidetzako foru politika partaidetu, partekatu eta gizarteari ireki batean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak.

ESKUTIKen, eta lehenetsitako ikuspegiaren artean, giza eskubideen ikuspegia ezartzen da, honako hau jasotzen duena: “giza garapen jasangarria ezin da giza eskubideetarako sarbidearen eta haien erabilera askearengandik bereizi, herritar guztientzako baita, salbuespenik gabe. Horien sustapena giza eskubide indibidual eta kolektibo guztien (izan zibilak, politikoak,

ekonomikoak, sozialak, kulturalak edo hirugarren mailakoak) unibertsaltasun, banaezintasun eta interdependentzian oinarritu behar da. Giza duintasunak eskubideen osotasuna asetzeari behar du, eta horrek soilik handiagotu ditzake pertsonen eta herrien benetako askatasunak, eta haien ongizatearekin lagundu“.

Era berean, eta jorratutako tresnen artean, eragiteko eta babesteko konpromisoa jasotzen da. “Arabako Foru Aldundiak, giza eskubideen ikuspegitik abiatuta, intzidentzia-jarduerak sustatzen ditu harekin harremanak dituzten pertsona eta komunitateen alde lankidetzaren prozesuen bidez. Giza eskubideen urratze larrien kasu zehatzak ezagutu eta salatzearen asmoz, Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzuak defendatzaileei harrera egin eta entzun egiten diete, haien egoera eta duten konpromisotik eratorritako arriskuak agerian jartzeko. Horrez gain, komunikazio publikoak edota aitorten instituzionalak egiten ditu defendatzaileak arrisku-egoeraren aurrean egotean babesa agertzeko eta alerta-deialdiak egiten dituzte haien aurka erasoak edo urratzeak egotean. Berezik kontuan hartu beharreko tresna bat da Laia ahalduntze-eskola, emakume aktibista eta giza eskubideen defendatzaileentzako bozgorailua baita. Aurretiaz lortu denetik abiatuta, ekintzak eta tresnak garatzen jarraituko du Arabako Foru Aldundiak giza eskubideen defentsan aritzen diren pertsona eta kolektiboekin laguntzeko“.

Nazio Batuen barruan ere aintzatetsi da giza eskubideen defendatzaileek duten zilegitasuna eta betetzen duten eginkizun erabakigarria, bai eta horiek babesteko ahalegin bereziak egiteko beharra ere. Ahalegin horien bidez, giza eskubideen “defentsa” eskubide gisa definitu zen, eta eskubide horien alde lan egiten duten pertsonak “giza eskubideen defendatzaile” gisa aintzatetsi ziren.

“Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek unibertsalki onartutako giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeko eta babesteko duten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena”, “Giza eskubideen defendatzaileei buruzko Adierazpena” izenez ezagutzen dena, NBERen Batzar Nagusiak adostasunez onartua, honako hau aitortzen du: “Pertsona orok du, banaka edo kolektiboki, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak nazioan eta nazioartean sustatu eta gauzatzeko eskubidea“.

Hala ere, behin eta berriz salatzen denez, mundu osoko giza eskubideen defendatzaileen egoera oso kezagarria da. Haien kontrako mehatxuak askotarikoak dira (fisikoak, psikologikoak, ekonomikoak eta sozialak). Asko estigmatizatu, difamatu eta baztertu egin dira. Mehatxuak, jazarpena eta zaintza ere jasan dituzte. Beste batzuei eraso egin diete, bortxatu egin dituzte, hil egin dituzte eta desagerrarazi egin dituzte. Ohikoa da, halaber, atxiloteta eta espetxealdi arbitrarioak izatea eta akusazio faltsuen bidez epaitu eta kondenatuak izatea. Era berean, sarritan, beren eskubideak urratzen dituzten lege eta erregelamenduak aplikatzen zaizkie, bereziki adierazpen, elkartzeko eta zirkulazio askatasunerako eskubidea.

Babes jardunbideak toki, nazio, eskualde eta nazioarte mailan aplikatzen eta gurutzatzen dira. Plano horietako batean hartzen diren neurriek eragina izan dezakete beste baten neurrietan. Horregatik, garrantzitsua da babes eta intzidentzia neurriak elkarren osagarri izatea eta elkar indartzea, Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren kasuan, “Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programari” dagokionez, eta, hala badagokio, AECIDek Estatu mailan bultzatutako giza eskubideen defendatzaileei laguntzeko programari dagokionez.

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren proposamena aztertu da.

Horrenbestez, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatu naizenez nire eskumenekoak diren eskudantziei baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lehia askeko arabidean dauden irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeekin zuzendutako dirulaguntzen deialdia onartzea, Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren esparruko ekintzak finantzatzeko. Zehazki, 2025eko ekitaldirako, 40.000,00 euroko aurrekontuarekin.

Bigarrena. Deialdi hori arautzen da Diputatu Nagusiaren Sailaren lehia araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorren arabera (Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretua, 2020ko uztailaren 27ko ALHAOn, 84. zenbakian, argitaratua), bai eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoaren arabera ere, eta, halakorik ezean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren arabera eta legeria osagarri eta garapen legedi aplikagarriaren arabera ere, Garapen Jasangarrirako Lankidetzari eta Elkartasun Globalari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Lege berrian aurreikusitakoaren aurka ez doan guztian. Hain zuzen, lege horren xedea da garapen jasangarrirako eta elkartasun globalerako lankidetzaren araubide juridikoa ezartzea, eta xedapen indargabetzaile bakarrean indargabetu egiten ditu lege horretan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak. Halaber, otsailaren 15eko 3/2024 Euskal Legeak, Lankidetzarako eta Elkartasunerakoak, xedatutakoari ere jarraituko zaio.

Hirugarrena. Foru Agindu honen bidez araututako dirulaguntzak "Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Arabako Mekanismoa 25302. G/232254/48100291" aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira, Arabako Foru Aldundiaren 2025erako aurrekontuko 40.000,00 eurotan.

Laugarrena. Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendariari ahalmena ematea foru agindu hau garatu, interpretatu eta betearazteko behar diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Bosgarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua eta hurrengoaren arabera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Seigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea. Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 14a

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria
JOANA DEL HOYO FERNÁNDEZ

ERANSKINA

DEIALDIA, LEHIA ASKEKO ARAUBIDEAN IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ELKARTE ETA ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKOA, ERAGITEKO ETA GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO ARABAKO MEKANISMOAREN ESPARRUKO 2025EKO EKITALDIKO EKINTZAK FINANTZATZEKO

SARRERA

Otsailaren 15eko 3/2024 Euskal Lege berriak, Lankidetzarako eta Elkartasunerakoak, zioen azalpenetik bertatik, giza eskubideen defendatzaileen egoera salatzen du: "herrialde askotan, eremu demokratikoa gero eta txikiagoa da, eta horrek mugatu egiten du herritarrek eta erakunde sozialek gizarte demokratikoagoak eraikitzeke duten funtsezko eginkizuna; testuinguru horietan, giza eskubideen alde egiten duten pertsonak, komunitateak, erakundeak eta sareak

askotariko mehatxuak, kriminalizazio-egoerak eta jazarpena jasaten ari direla egiaztatu da”; 19. artikuluan xedatzen duenez, “giza eskubideak sustatzen laguntzeko eta eskubide horiek aldeztu dituzten pertsonen, erakundeen eta sareen laguntzeko, euskal administrazio publikoek komunikazioa, posizionamendu publikoa eta eragina helburu duten jarduketak egin ahal izango dituzte”.

Lege horren laugarren artikuluan, helburuen artean, hau ageri da: “bereziki hegoaldeko gizataldeetan txirotasuna eta bazterkeria eragiten dituzten egiturazko arazoak eraldatzeko ekarpena egitea eta giza garapena eta jasangarritasuna sustatzea...”; horrez gain, hau xedatzen da berariaz: “giza eskubideen nazioarteko testuinguruan, justizia globala sustatzea” eta “gizarte askeak, demokratikoak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea eta herrien arteko bizikidetzaren globala bultzatzea. Helburu hori lortzeko, giza eskubideen defentsan eta horien aplikazioaren agendan, gobernantza demokratikoan, bakearen eraikuntzan eta herritartasun aktibo eta konprometituaren sakonduko da”.

Azkenik, 6. artikuluan, lehentasunezko ikuspegi buruzkoan, hau nabarmentzen da: “giza eskubideen ikuspegia, eskubide –indibidualen edo kolektiboen– zibilen, politikoen, ekonomikoen, sozialen, kulturalen eta ingurumeneko izaera integrala aitortzen baitu. Giza eskubideen aldeko nazioarteko konpromisoak indarrean dirautela aldarrikatzen du, eta eskubideen, betebeharren eta erantzukizunen titularren funtsezko eginkizuna indartzen duten estrategiei helden die”.

2004an argitaratu eta 2008an berrikusi ziren Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Europar Batasunaren Jarraibideek bezala, Eusko Legebiltzarrak berak, giza eskubideen defendatzaileen aldeko adierazpen instituzionalean (2018), defendatzaileak babesteko eta aintzatesteko erantzukizunari eta eginkizunei dei egiten die, eta horiek betetzeko dei berezia egiten du. Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, “Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa” abiarazi zuen.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak ESKUTIK 2022/2025 esparru dokumentua dauka lankidetzaren eta elkartasuneko politika publikorako. Dokumentu horren helburua da jardun esparru garbia ezartzea, 2030 Agenda Berria eta Garapen Jasangarriaren Helburuetan ezarri diren nazioarteko egungo erronkei eta esparruei egokitu, eta esparru horri erantzea lankidetzako foru politika partaidetu, partekatuta eta gizarteari ireki batean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak.

ESKUTIKen, eta lehenetsitako ikuspegiaren artean, giza eskubideen ikuspegia ezartzen da, honako hau jasotzen duena: “giza garapen jasangarria ezin da giza eskubideetarako sarbidearen eta haien erabilera askearengandik bereizi, herritar guztientzako baita, salbuespenik gabe. Horien sustapena giza eskubide indibidual eta kolektibo guztien (izan zibilak, politikoa, ekonomikoa, sozialak, kulturalak edo hirugarren mailakoak) unibertsaltasun, banaezintasun eta interdependentzian oinarritu behar da. Giza duintasunak eskubideen osotasuna asetzea behar du, eta horrek soilik handiagotu ditzake pertsonen eta herrien benetako askatasunak, eta haien ongizatearekin lagundu”.

Era berean, eta jorratutako tresnen artean, eragiteko eta babesteko konpromisoa jasotzen da. “Arabako Foru Aldundiak, giza eskubideen ikuspegitik abiatuta, intzidentzia-jarduerak sustatzen ditu harekin harremanak dituzten pertsona eta komunitateen alde lankidetzaren prozesuen bidez. Giza eskubideen urratze larrien kasu zehatzak ezagutu eta salatzeko asmoz, Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzuak defendatzaileei harrera egin eta entzun egiten diete, haien egoera eta duten konpromisotik eratorritako arriskuak agerian jartzeko. Horrez gain, komunikazio publikoak edota aitorpen instituzionalak egiten ditu defendatzaileak arrisku-egoeren aurrean egotean babesa agertzeko eta alerta-deialdiak egiten dituzte haien aurka erasoak edo urratzeak egotean. Bereziki kontuan hartu beharreko tresna bat da Laia ahalduntze-eskola, emakume aktibista eta giza eskubideen defendatzaileentzako bozgorailua baita. Aurretiaz lortu denetik abiatuta, ekintzak eta tresnak garatzen jarraituko du Arabako Foru Aldundiak giza eskubideen defentsan aritzen diren pertsona eta kolektiboei laguntzeko”.

Nazio Batuen barruan ere aintzatetsi da giza eskubideen defendatzaileek duten zilegitasuna eta betetzen duten eginkizun erabakigarria, bai eta horiek babesteko ahalegin bereziak egiteko beharra ere. Ahalegin horien bidez, giza eskubideen “defentsa” eskubide gisa definitu zen, eta eskubide horien alde lan egiten duten pertsonak “giza eskubideen defendatzaile” gisa aintzatetsi ziren.

“Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek unibertsalki onartutako giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeko eta babesteko duten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena”; “Giza eskubideen defendatzaileei buruzko Adierazpena” izenez ezagutzen dena, NBEren Batzar Nagusiak adostasunez onartua, honako hau aitortzen du: “Pertsona orok du, banaka edo kolektiboki, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak nazioan eta nazioartean sustatu eta gauzatzeko eskubidea”.

Hala ere, behin eta berriz salatzen denez, mundu osoko giza eskubideen defendatzaileen egoera oso kezagarria da. Haien kontrako mehatxuak askotarikoak dira (fisikoak, psikologikoak, ekonomikoak eta sozialak). Asko estigmatizatu, difamatu eta baztertu egin dira. Mehatxuak, jazarpena eta zaintza ere jasan dituzte. Beste batzuei eraso egin diete, bortxatu egin dituzte, hil egin dituzte eta desagerrarazi egin dituzte. Ohikoa da, halaber, atxiloketa eta espetxealdi arbitrarioak izatea eta akusazio faltsuen bidez epaitu eta kondenatuak izatea. Era berean, sarritan, beren eskubideak urratzen dituzten lege eta erregelamenduak aplikatzen zaizkie, bereziki adierazpen, elkartze eta zirkulazio askatasunerako eskubidea.

Babes jardunbideak toki, nazio, eskualde eta nazioarte mailan aplikatzen eta gurutzatzen dira. Plano horietako batean hartzen diren neurriek eragina izan dezakete beste baten neurrietan. Horregatik, garrantzitsua da babes eta intzidentzia neurriak elkarren osagarri izatea eta elkar indartzea, Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren kasuan, “Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programari” dagokionez, eta, hala badagokio, AECIDek Estatu mailan bultzatutako giza eskubideen defendatzaileei laguntzeko programari dagokionez.

1. artikulua. Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua

Xedea lehia askeko araubidean dauden irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei zuzendutako dirulaguntzak arautzea da, Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren esparruko 2025eko ekitaldiko ekintzak finantzatzeko.

Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren esparruko ekintzat hartzen dira Arabako lankidetzarekin lotutako esku hartzeen esparruan giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babestea eta gauzatzea, indibidualki edo kolektiboki eta modu baketsuan, sustatzen eta bilatzen duen pertsona ororen eraginarekin eta/edo babesarekin lotutakoak.

Horrela, bereziki kontuan hartuko dira Nazio Batuen errelatoreak proposatutako zazpi printzipioak, horietan oinarritu behar baitira jardunbide egokiak giza eskubideen defendatzaileen babesean:

- Eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin heldu behar diote babesari, defendatzaileak ahalduz beren eskubideak ezagutzeko eta galdegiteko, eta eskubideak errespetatzeko, babesteko eta eraginkor egiteko arduradunen gaitasuna eta kontu ematea sustatuz.
- Defendatzaileen aniztasuna aintzat hartu behar dute, zeinak hainbat ingurune, kultura eta sinesmen sistematik baitatoz.
- Generoak defendatzaileen babesean duen garrantzia aintzat hartu behar dute, eta ikuspegi intersektionala aplikatu arriskuen ebaluazioan eta babes ekimenen diseinuan. Era berean, direnaren eta egiten dutenaren ondorioz arrisku handiagoak dituztenak ere aintzatetsi behar dituzte.
- Defendatzaileen “segurtasun integrala” hartu behar dute ardatz, bereziki segurtasun fisikoa, segurtasun digitala eta ongizate psikosoziala.

- Kontuan hartu behar dute defendatzaileak harreman sare baten parte direla, eta, beraz, ez dietela soilik banako defendatzaileen eskubideei eta segurtasunari erreparatu behar; aitzitik, arriskuak haiekin partekatzen dituzten taldeak, erakundeak, komunitateak eta senideak ere sartu behar dituzte.

- Defendatzaileen parte hartzea lortu behar dute haiek babesteko estrategiak eta taktikak egin, hautatu, aplikatu eta ebaluatzean. Defendatzaileen parte hartzea funtsezkoa da haien segurtasunerako.

- Malguak, moldagarriak eta defendatzaileen behar eta egoera zehaztutara egokituak izan behar dute.

Arreta berezia eskainiko zaie, besteak beste, testuinguru hauetan arrisku berezian dauden defendatzaile taldeei: ingurumenaren eta lurraldearen aldeko eta garapenerako megaproiektuei aurkako defentsa, herri indigenen, sexu eta ugalketa eskubideen edo indarkeriaren aurkako defentsa, sexu orientazioarekin eta genero identitatearekin lotutako eskubideen defendatzaileak, komunitateetako kazetariak, lan eskubideen eta/edo salerosketaren biktimak, errefuxiatuak edo okupaziopean daudenak.

Emandako dirulaguntzaren helburua erakunde eskatzaileak proposatutako eta administrazioak onartutako ekintza zehatzak finantzatzea izango da, betiere horiek deialdi honetan zehaztutako gaikako arloetan sartzen badira.

Ekintza horiek diruz lagundu ahal izateko, funtsen xede diren gastuak diruz laguntzeko modukoak izan beharko dira, deialdi honetan ezarritako baldintzen arabera.

Diruz lagundutako jarduera erakunde eskatzaileak bere eskabidean planteatutako baldintzetan egin beharko da, administrazioak dirulaguntza emateko prozeduran edo gauzatze aldian onartu dituen aldaketekin, hala badagokio, betiere aldaketa horiek ez badute aldatzen dirulaguntza ematearekin lortu nahi zen helburua.

Ondorio guztietarako, dirulaguntzaren edo laguntzaren erakunde onuraduna izango da hura gauzatzearen eta behar bezala justifikatzearen arduraduna, organo emailearen aurrean, tokiko bazkideek edo atzerriko aurkako alderdiek guztiz edo partzialki gauzatu duten kontuan hartu gabe.

Ez da azpi kontratutzat joko tokiko bazkideek edo atzerriko aurkako alderdiek guztiz edo zati batean gauzatzea dirulaguntza edo laguntza, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 27. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako. Behar bezala identifikatu beharko dira tokiko bazkideak edo aurkako alderdiak, proiektuan edo jardun proposamenean.

2. artikulua. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntza hauek lehia librean emango dira; funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira, baldin eta eskaerak deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Eskaerak aurkezteko epea aurrekontu esleipena agortu arte egongo da zabalik. Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, webgune honetan argitaratuko da: [Arabako Foru Aldundia - Zurekin online](#).

3. artikulua. Erakunde onuradunak eta kanpoan utzitakoak

Dirulaguntzen onuradun izateko debekurik ez duten erakundeek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak, baldin eta deialdi honetarako berariazko baldintza hauek betetzen badituzte:

a. Dagokion administrazio erregistroan formalki inskribatuta egotea, deialdi hau argitaratu baino urtebete lehenagotik.

b. Nortasun juridikoa izatea eta irabazteko asmorik ez izatea.

c. Sozietatearen egoitza edo egitura finko eta iraunkorra Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean edukitzea; horrexek bereganatuko du eskaera aurkezteak eta jarraipena egiteak dakarren erantzukizun zuzena eta proiektuen dokumentazioa Arabako bulegoan edukitzeko konpromisoa hartuko du.

Erakunde taldeek ere jaso ahal izango dituzte laguntza horiek, baldin eta elkarte hori osatzen duten guztiek eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Erakunde horiek proiektuaren erantzukizun bateratua bereganatuko dute; gainera, egoitza bakarra aukeratuko dute espedientearen administrazio jakinarazpenetarako.

Honako hauek ezin dute jaso deialdi honetako laguntzarik:

a. Aurreko ekitaldietan jasotako dirulaguntzekin egindako gastuak ezarritako epealdietan eta behar bezala justifikatu ez dituzten elkarteek eta erakundeek, zuzendaritzaren aburuz proiektu edo jarduera horiek ez justifikatu izanaren arrazoiak behar bezala justifikatuta badaude izan ezik.

b. Estatuaren menpeko erakundeek eta zerbitzuek, erkidegoko administrazioak, toki erakundeek, aurrezki erakundeek eta enpresek.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen proiektuak: giza eskubideei eta defendatzaileen lanari laguntzea

Babes jardunbideak defendatzaileen segurtasuna indartzean oinarritu behar dira, ikuspegi integral baten bidez. Segurtasuna ez da soilik segurtasun fisiko gisa ulertu behar, baizik eta askotariko dimentsioen emaitza gisa. Dimentsio horien artean daude, besteak beste, Arabako lankidetzak esku hartzen duen testuinguruetan mehatxatuta edo jazarrita dauden pertsonen segurtasun ekonomikoa, segurtasun politikoa, ingurumen segurtasuna, segurtasun digitala eta ongizate psikosoziala.

Generoak eragina du defendatzaileek arriskuak eta mehatxuak hautemateko moduan. Genero arrazoiengatik bereizkeria beste faktore batzuekin lotuta dago, hala nola jatorri etnikoarekin, erlijioarekin, klase sozialarekin, adinarekin, osasunarekin edo sexu orientazioarekin. Faktore horien elkarguneak hainbat zaurgarritasun maila dakar emakumeentzat.

Hortik dator generoak defendatzaileei eman beharreko babesean duen funtsezko garrantzia, arriskuen ebaluazioari eta babes ekimenen diseinuari sailarteko ikuspegia aplikatuz, faktore horien konbinazioak defendatzaileen eskubideetan eta segurtasunean nola eragiten duen aztertuz Arabako lankidetzak esku hartzen duen testuinguruetan.

Pertsona batzuek, gainera, arrisku handiagoei eta zehatzagoei egin behar diete aurre. Gizarte eta kultura arauai aurre egiten dieten defendatzaileak, ezarritako estereotipoekin eta rolekkin bat ez datozenak, edo gizarteko botere egiturak zalantzan jartzen dituztenak (hala nola sexu orientazioarekin eta sexu identitatearekin lotutako eskubideen defendatzaileak, gutxiengoak eta herri indigenen eskubideen, LGTBI kolektiboaren, sindikalisten, kazetari komunitarioen, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen edo edozein esplotaziotarako salerosketaren biktimen defendatzaileak), askotan estigmatizatu egiten dira eta mehatxuak jasaten dituzte direnaren edo egiten dutenaren ondorioz. Gatazka eremuetan eta lurralde okupatueta lan egiten duten defendatzaileak ere zaurgarriagoak dira segurtasun gabeziaren eta etengabeko mehatxuen aurrean.

NBEren Giza eskubideen defendatzaileei buruzko adierazpenaren esparru orokorrean, honako hauek hartzen dira diruz laguntzeko moduko ekintzatat:

- Arabako lankidetzarekin lotutako esku-hartzeen esparruan, banaka edo kolektiboki eta modu baketsuan giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesten eta gauzatzen dituzten pertsonen giza eskubideak erabat errespetatzen laguntzen dutenak, berehalako arrisku egoeran dauden defendatzaileentzako larrialdiko erantzunetatik hasi eta aurre egin beharreko arriskuak murrizteko prebentzio neurrietaraino.

- Babes politika integral bati laguntzen diotenak. Ikuspegi zabal horretan sartzen dira, besteak beste, babes fisikoko mekanismoak, muturreko arrisku egoeren aurrean, urraketak prebenitzeko neurriak, haien aurkako erasoak ikertzekoak eta/edo egiteagatik edo ez egiteagatik erantzule direnak zigortzekoak.

NBEren Errelatoretzaren Berezikiak giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruz egindako proposamenaren arabera, jarraian, finantzatu daitezkeen intzidentzia eta babes jardueren adibideak eskaintzen dira, baina hau ez da zerrenda zehatz edo itxi bat:

Tokien bertan babesteko neurriak:

- Segurtasunaren ikuskera integrala: segurtasun integrala emateko neurriak (segurtasun fisikoa, ekonomikoa, politikoa, digitala, ongizate psikosoziala...).
- Babesa eta laguntza larrialdiko egoeretan: larrialdiko sorospinak, birkokatze ekimenak, ostata eta lan espazio seguruak bilatzea, babes laguntza, bisitak, tokian bertan egindako misioak, premiazko deiak, adierazpen publikoak...
- Defendatzaileen gaitasunak garatzea: aurrez aurreko edo lineako gaikuntza ikastaroak, tailerrak, mintegiak eta hitzaldiak; laguntza, tutoretza eta lankidetzak jarduerak; datu baseak, eskuliburuak eta egon daitezkeen beste tresna batzuk.

Intzidentzia neurriak Arabako Lurralde Historikoan:

Giza eskubideen arloko kontzientziazioa: defendatzaileak ikusarazteko, salatzeo, laguntzeko eta babesteko neurriak, giza eskubideen urraketak prebenitzeko neurri gisa.

Proiektuen betekizunak:

Horrela, honako baldintza hauetako bat edo batzuk betetzen dituzten esku hartzeak onartuko dira, Arabako lankidetzarekin lotutako esku hartzeen esparruan giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babestea eta gauzatzea, indibidualki edo kolektiboki eta modu baketsuan, sustatzen eta bilatzen duen pertsona ororen eraginarekin eta/edo babesarekin lotutakoak:

- Eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin babesari heltzen dioten proiektuak, defendatzaileak ahalduz beren eskubideak ezagutzeko eta galdegiteko, eta eskubideak errespetatzeko, babesteko eta eraginkor egiteko arduradunen gaitasuna eta kontu ematea sustatuz.
- Defendatzaileen aniztasuna eta hainbat ingurune, kultura eta sinesmen sistematik datozela aintzat hartzen duten proiektuak.
- Generoak defendatzaileen babesean duen garrantzia aintzat hartzen duten proiektuak, eta ikuspegi intersektionala aplikatzen dutenak arriskuen ebaluazioan eta babes ekimenen diseinuan. Era berean, direnaren eta egiten dutenaren ondorioz arrisku handiagoak dituztenak ere aintzatetsi behar dituzte.
- Defendatzaileen "segurtasun integrala" jorratzen duten proiektuak, bereziki segurtasun fisikoa, segurtasun digitala eta ongizate psikosoziala.
- Defendatzaileak harreman sare baten parte direla kontuan hartzen duten proiektuak, eta, beraz, kontuan hartzen dutenak ez dietela soilik banako defendatzaileen eskubideei eta segurtasunari erreparatu behar eta, aitzitik, arriskuak haiekin partekatzen dituzten taldeak, erakundeak, komunitateak eta senideak ere sartzen dituztenak.
- Defendatzaileen parte hartzea bultzatzen duten proiektuak, haiek babesteko estrategiak eta taktikak egin, hautatu, aplikatu eta ebaluatzean. Defendatzaileen parte hartzea funtsezkoa da haien segurtasunerako.
- Proiektu malguak, moldagarriak eta defendatzaileen behar eta egoera zehaztutara egokituak.

Oinarri hauen bidez diruz lagundutako ekintza guztietan, erakunde batek laguntza jasoko duen herrialdean lan egin beharko du. Herrialde hartzailearen egoerak eragozten ez badu, tokiko bazkide horrek berezko nortasun juridikoa izango du, eta ez du irabazteko xederik izango.

Ildo horren kargura babesten diren esku hartzeak benetan inplikatu beharko dute erakunde eskatzailearen Arabako ordezkariak garatu beharreko ekintzen jarraipenean. Horretarako, elkarrearen lehendakariak sinatutako agiri bat aurkeztu beharko da, Arabako ordezkarietatik jarraipena egiteko konpromisoa jasotzen duena.

Esku hartzeak gehienez ere laguntza ordaindu eta lau hilabeteko epean egin beharko dira.

Aurrerakina ordaindu denetik gehienez ere bi asteren barruan hasi beharko da proiektua, eta betiere 2025. urtean. Justifikatutako arrazoiren batengatik gauzatzen hasteko atzerapen handiagorik gertatzen bada, idatzizko baimena eskatu beharko zaio Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea luzatu ahal izango da, eta beharrezkoa izango da aldez aurretik eta berariaz Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari jakinaraztea, gauzatzeko epea amaitu baino lehen. Eskaerak onartutako proiektuan zehaztutako epeak betetzeko ezintasuna arrazoitu beharko du.

5. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontua, zenbatekoa eta muga

Deialdi publiko honetan araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2025eko aurrekontuko 25302. G/232254/48100291 partidaren kontura ordainduko dira ("Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoa"), 40.000,00 euroan.

Emandako dirulaguntzak ezin izango du, inola ere, eskatutako zenbatekoa gainditu. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 8.000,00 euro izango da erakunde bakoitzeko, eta proiektu bat aurkeztu ahal izango da erakunde eskatzaile eta urte bakoitzeko, bai banaka bai taldeka. Hala ere, egoera oso larrietan, behar bezala egiaztatuta daudenean, esku hartze gehiago finantzatu ahal izango dira, baldin eta funts nahikoa badago.

6. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta behar-beharrezkoak direnak eta proiektua gauzatzeko epean egiten direnak.

Proiektu baten barruan Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren iritziz deialdi honen xederako behar beste laguntzen ez duten jarduerak badaude, baztertu egin ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

Halaber, gehienez ere, diruz lagundu daitezkeen proiektuaren kostu zuzenen ehuneko 10 jaso ahal izango du dirulaguntza ezer justifikatu beharrik gabe, gastu orokorrak edo zeharkako gastuak badira.

7. artikulua. Eskaerak aurkeztea eta agiriak

Araudi honen xede diren laguntzak emateko prozedura erakunde onuradunak eskatuta hasiko da, eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako garapenerako lankidetzaren arloaren aldeko nahitaezko txosten teknikoaren ondoren formalizatuko da.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta aurrekontuko esleipena agortu ondoren amaituko da, edo, bestela, 2025eko abenduaren 15a baino lehen.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, erakunde interesdunek, pertsona juridikoak diren aldetik, aurkezpen telematikoa egin beharko dute nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (Erregistro Elektroniko Komuna: <https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoaren bidez.

Erakunde interesdunak, egiten dituzten agiri bidalketa elektronikoz guztietan, pertsona juridikoen bitarteko elektronikoren baten bidez identifikatu beharko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Izapideak nahitaez linean egin behar dituzten pertsonak bertaratuz egiten badute, edo erakunde eskatzailea ez bada behar bezala identifikatzen elektronikoki, eskabidea behar bezala egiteko eta era elektronikoz egiteko eskatuko zaie. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen datatzat.

Halaber, deialdi hori erantsitako ereduaren arabera eskaerak modu elektronikoz bete eta bidali beharko dira. Eredu horiek Arabako Foru Aldundiaren web orrian eskuratu ahal dira: <https://web.araba.eus/es/igualdad-cooperacion-e-interculturalidad>.

Aurreko paragrafoetan ezartzen diren ondorioetarako, osorik ez dauden eskaerak aurkeztu ez direla emango da, eskaera erabat zuzendu arte. Orduan, behin betikotzat joko dira.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskabideekin batera, agiri hauek bakarrik aurkeztu beharko dira, ordenatuta eta jarraian adierazi bezala izendatuta:

a. I. eranskina, proiektuaren inprimakia, erakundearen legeko ordezkariak sinatutako eredu ofizialaren arabera.

b. Erakundea dagokion administrazio erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

c. Erakundearen lehendakariak sinatutako agiria, ziurtatzen duena erakunde eskatzaileak sozietatearen egoitza edo egitura finko edo egonkorra duela Arabako Lurralde Historikoz, eta konpromisoa erakusten duena jarraipena ordezkariak horretatik egiteko.

2. Erakunde onuradunek zerga betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute, eta soldatapeko langileak badituzte, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.

Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekiko dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauak 21.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, pertsona onuradunak eskaera aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

3. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, interesdunak eskubidea dute Arabako Foru Aldundiak jadanik dituen edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez aurkezteko. Horrenbestez, administrazioak agiri horiek kontsultatu edo bil ditzake, salbu eta eskatzaileek berariaz ukatzen badute egiaztapen hori egiteko baimena. Kasu horretan, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu agiriak.

Halaber, aurretik edozein administrazio aurkeztutako agiririk ez zaie eskatuko interesdunei. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zein administrazio organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, eta instrukzio organoak bildu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago interesdunaren berariazko aurkakotasuna edo aplikatzekoa den lege bereziak haren berariazko baimena eskatzen badu.

Salbuespenez, baldin instrukzio organoak ezin baditu lortu aurreko apartatueta adierazitako agiriak, interesdunari berriz ere aurkezteko eskatu ahalko dio.

4. Eskabideekin batera nahiz frogagiritan bide elektronikoz ematen diren kopien balioa dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko izango da bakarrik. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, onuraduna izango da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren arduraduna. Hala ere,

Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

Digitalizatu ezin diren aleak, edo beren ezaugarriengatik bidalketa elektronikorako tamaina muga gainditzen dutenak (fitxategiak, 10 Mb, edo bidalketa, 50 Mb) euskarri fisikoan entregatu ahal izango dira Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuan (Jesusen Zerbitzarien kalea, 1, 01001 Vitoria-Gasteiz), eskabidean zirkunstantzia hori adierazita.

5. Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren agirietan akatsik izanez gero edo osorik bete gabe egonez gero, interesdunei hamar egun balioduneko epea emango zaie antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

6. Aurkeztutako eskaera egoki ebaluatu eta ebazteko, Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak agiri eta informazio gehiago eska diezaieke erakunde eskatzaileei.

Era berean, esku hartzeko proposamena berrikusi eta nahitaezko txosten teknikoa egin aurretik, erakunde eskatzailearekin elkarrizketa bat egin ahal izango da, proiektuari buruz aurkeztutako informazioa argitzeko.

9. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskuduna

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua izango da prozedura bideratzeko organo eskuduna, Arabako Foru Aldundiko garapenerako lankidetzaren arloak nahitaezko txosten teknikoa egin ondoren.

Proiektuen bideragarritasun teknikoa baloratzeko, giza eskubideen eta/edo garapenerako lankidetzaren arloan espezializatutako erakunde lankidetzara eskatu ahal izango da, hala badagokio.

10. artikulua. Ebazteko epea

1. Arabako Foru Aldundiko garapenerako lankidetzarako arloak nahitaezko txosten teknikoa egingo du, erakunde interesdunak eskaera aurkeztu eta gehienez ere 7 eguneko epean.

2. Txosten tekniko horrek, arrazoiak emateko deialdiaren baldintzak betetzen direla aipatuta, honako hauek adierazi beharko ditu:

a) Eskaera aztertzeke aplikatutako irizpide teknikoak, eta, hala badagokio, beren eskubideei konpondu ezin zaien kalte arriskuko larritasun eta premia egoeran daudelako ustea.

b) Lagundutako proiektuaren xedea eta, hala badagokio, diruz lagun daitekeen aurrekontua.

3. Txosten teknikoa egin ondoren, aldekoa bada, dagokion dirulaguntza aitortuko duen foru agindua emango da, eta erakunde onuradunari jakinaraziko zaio.

11. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Laguntzak kreditu erabilgarria agortu arte emango dira, eta aurrerakin gisa ordainduko dira, erakunde bakoitzari emandako dirulaguntzaren ehuneko 100eko ordainketa bakarrean. Ordainketa hori dirulaguntza emateko ebazpena ematen den egunetik aurrera egingo da.

Erakunde onuradunetako batek uko egiten badio, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten denetik gehienez 2 hilabeteko epean, beste erakunde eskatzaile batzuei eman ahal izango zaie dirulaguntza, muga deialdiari azkenean esleitutako zenbateko ekonomikoa izanik eta nahitaezko txosten teknikoaren ondoren.

12. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa

Erakunde onuradunek egindako jarduerari buruzko txosten labur bat aurkeztu beharko dute, gehienez ere ekintza amaitu eta hiru hilabeteko epean, eta, nolana ere, laguntza ordaindu eta zazpi hilabeteko epean, II. eranskinean jasotako inprimakiaren arabera.

Justifikazio sistemak (gastuak justifikatzeko ekonomia edo finantza memoria), betiere, esku hartzearen inguruabarren arabera aurkez daitezkeen kontabilitate agiriak jaso beharko ditu.

Ekonomia edo finantza memoriari dagokionez, horrek "Justifikazio kontu erraztuaren modalitatea" onartuko du. Modalitate horretan erakunde onuradunak ondokoak aurkeztuko ditu: gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua eta banaka xehatua, eta diru sarreren zerrenda xehatua, bai eta 1.000,00 eurotik gorako (balioa zein kontrabalioa) gastu, inbertsio eta sarreren frogagiriak ere. Hala ere, erakunde eskatzaileak frogagiri guztiak gordeko ditu, eta Arabako Foru Aldundiak ausaz berrikusi ahal izango ditu.

Hauexek izango dira gastuen eta inbertsioen frogagiriak: dirulaguntzaren xede den programari egotz ahal zaizkion fakturak edo estatu barruko zein atzerriko merkataritzako trafikoan onartzen diren antzeko agiriak, jatorrizkoak zein kopia konpultsatuak, eta hornitzaileei egindako ordainketen frogagiriak.

Faktura elektronikoak aurkezten badira, fakturazio elektronikoari buruzko araudian xedatutakoa bete beharko du horien formatuak.

Laguntzen izaera dela eta, kopia sinplea edo digitalizatua aurkeztu ahalko da dirulaguntza justifikatzeko eskatutako agirien orde. Kopia hori erakundearen arduradunak edo hark horretarako izendatutakoak izapidetuko du, eta hartan adieraziko da bat datozela jatorrizko agiriarekin, eta horren erantzule egingo da. Halaber adieraziko da non dauden gordailututa jatorrizkoak, bai eta onartu ere jatorrizko horiek aurkezteko konpromisoa.

Dena den, Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren dirulaguntzen ondorio diren funtsekoak baino ez dira egiaztatuko. Gainerako ekarpenak direla eta, soilik egiaztatuko da funtsak aurreikusitako jardueretan erabili direla. Horretarako, nahikoa izango da programa, proiektua edo jarduera finantzatu duten gainerako administrazio publikoek jaulkitako egiaztariak aurkeztea.

Hala ere, aurreikusitako jardueren barruan garapenerako laguntza ofizialak jasotzen dituzten herrialdeetan egindako gastuen kasuan, ordainagiriak ere erabili ahal izango dira gastuaren frogagiri gisa, izan kutxa ordainagiriak, hau da, ordainketa egiten duen erakunde edo subjektu berak jaulkitako eta ondasun edo zerbitzuen erakunde hornitzaileak sinatutako dokumentuak, haietan adierazitako zenbatekoa jaso duela egiaztatzen dutenak, edo izan erakunde hornitzaileek berek jaulkitako ordainagiriak, haiek merkatuetan jarduten dutenean. Oro har, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak alde aurretik baimendu beharko du ordainagirien erabilera fakturen orde. Zuzendaritzak gerora ere baimendu ahal izango ditu fakturak, baldin eta uste badu, alde aurretik eskatu izan bazuten, eman egingo zitzaizela. 500,00 euroko edo hortik beherako zenbatekoen kasuan, ez da baimen hori beharko, baldin eta hirugarren berari dagozkion zenbatekoen batura ez bada kopuru hori baino handiagoa.

Behar bezala egiaztatutako salbuespenezko egoerak gertatuz gero, hala nola hondamendi naturalak, gatazka armatuak edo krisi humanitarioak, gastua justifikatzeko dokumentazio egokia izatea zailtzen edo are eragozten dutenak, beste justifikazio modu batzuk onartu ahal izango dira, hala nola egindako emaitzak edo jarduerak egiaztatzea, pertsona edo erakunde beteazaleen erantzukizunpeko adierazpena edo antzeko froga balioa duten beste batzuk.

Diruz lagundu daitezkeen zeharkako gastuak edo funtzionamendukoak diruz lagundu ahal izango dira, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen proiektu osoaren zuzeneko kostuen ehuneko 10eraino, justifikatu beharrik gabe.

13. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna

Deialdiak onartu ahal izango du Arabako Foru Aldunditik bertatik edo estatuko nahiz nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuk jasotzea, baldin eta dirulaguntza horien zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagun daitekeen guztizko aurrekontua baino handiagoa ez bada.

14. artikulua. Aldaketak

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada edo beste ekarpenen bat jasotzen bada (oinarri hauetan baimendutako kasuetan izan ezik), dirulaguntza emateko ebazpena alda daiteke.

Diruz lagundutako erakundeak Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren berriazko baimena beharko du hasierako proiektuan aldaketa esanguratsuak egiteko. Aldaketa esanguratsutzat hartzen da epeak, kokapena, biztanleria eta/edo jarduerak aldatzea dakarrena. Era berean, aldaketa esanguratsutzat joko da partiden aldaketak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko hamarri baino gehiagori eragiten dionean, zeharkako gastuak alde batera utzita. Aldaketa hori Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak baimendu beharko du.

15. artikulua. Interpretazioa

Foru agindu honetan onetsitako deialdiak interpretatzeko orduan sor daitezkeen zalantzak Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak ebatziko ditu.

16. artikulua. Kontrolak

Deialdi honen xede diren laguntzen erakunde onuradunek onartu egin beharko dituzte dirulaguntza horien kudeaketa egiaztatzeko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak egiten dituen kontrolak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezartzen dituen ekonomia eta finantza kontrolerako eta kudeaketarako jarduerak, eta Kontuen Epaitegiaren edo beste organo eskudun batzuen legerian jasotako beste jarduera batzuk.

**I. ERANSKINA.- AURKEZTEKO INPRIMAKIA****1.- GERTATUTAKO EGOERAREN DESKTRIBAPEN LABURRA****Tokiko testuingurua****Contexto local**

Testuinguruaren deskribapen laburra	
-------------------------------------	--

Egoerari buruzko oinarrizko datuak

Defendatzaileen parte hartzea haien segurtasunerako funtsezko garrantzia duen faktorea denez, datuak haien ezagutzarekin beteko dira, eta datu horiek ez badute arriskuan jartzen pertsonen osotasuna, zeienak babesteko eskatzen baitira deskribatutako neurriak.

Beren lanaren ondorioz erasoak edo errepresaliak jasango dituzten beldur isilpean lan egin behar duten defendatzaileen kasuan, tokiko erakundeak eta/edo Arabako erakundeak aurkeztutako babesaren beharra egiaztatuko dute.

Herrialdea	
Herria / Eskualdea	
Defendatzailearen izena	Haren segurtasuna eta ingurukoena arriskuan jartzen ez badira baino ez
Defendatzailearen jardura baketsuaren deskribapena	
Mehatxuen, larderia ekintzei, jazarpenari, erasoari, xaxatzeari, difamazioari, diskriminazioari... lotutako egoeraren deskribapena,...	
Urratutako eskubideak	
Defendatzailearen aurkako gertakarien datak	
Identifikatutako arriskuen ebaluazioa	



eta erasandako defendatzaileen parte hartzea	
Erantzule gisa identifikatutako balizko eragileak	
Informazio iturriak	
Arabako erakundea	
Toki erakundea	
Tokiko eta Arabako erakundeen arteko lotura, eta Arabako lankidetzarekikoa	

Jarduketaren laburpena

Arrisku bereziko defendatzaile-taldeak	Arreta berezia eskainiko zaie, besteak beste, testuinguru hauetan arrisku berezian dauden defendatzaile taldeei: ingurumenaren eta lurraldearen aldeko eta garapenerako megaproiektuei aurkako defentsa, herri indigenak, sexu eta ugalketa eskubideen edo indarkeriaren aurkako emakume defendatzaileak, sexu orientazioarekin eta genero identitatearekin lotutako eskubideen defendatzaileak, komunitateetako kazetariak, lan eskubideen eta/edo salerosketaren biktimak, errefuxiatuak edo okupaziopean daudenak
Giza eskubideak babesteko eta defendatzeko sareetako kide izatea	
Eskatutako babes neurriak eta ingurune segurua sustatzea	
Genero irizpideak eta interseksionalitatea arriskuen ebaluazioan eta babes ekimenen diseinuan	



Gauzatze epea	
Proposatutako neurrien aurrekontu banakatua	
Hala badagokio, tokiko, nazioko eta/edo nazioarteko agintarien aurrean eragin neurriak aktibatzea komeni den	Hala badagokio, agintari hartzaileak identifikatzea
Hala badagokio, Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoak bultzatzeko premiazko deialdi bat egitea komeni da	Hala badagokio, agintari hartzaileak identifikatzea.
Proposamenerako interesgarria izan daitekeen informazio gehigarria	



II. ERANSKINA-JUSTIFIKAZIO INPRIMAKIA

Herrialdea: Onartutako esku hartze mota: Harremanetarako pertsona: Txostenaren data:

I. ESKU HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA

1.- Denborari lotutako alderdiak

Dirulaguntza jaso den data	
Diruz lagundutako esku hartzearen hasiera data	
Diruz lagundutako esku hartzearen amaiera data	

2.- Gauzatutako esku hartzea

Tokian bertan ardura duen erakunde	
Esku hartzeko gunea	
Esku hartze mota eta eragina defendatzailearengan eta/edo haren erreferentziako komunitatearengan	

3.- Aldaketak hasieran aurreikusitako esku hartzeari dagokionez

Esku hartzeko guneari eutsi al zaio?	Bai	Ez
Aurreikusitako laguntza motari eutsi al zaio?	Bai	Ez
Beste aldaketarik izan al da hasieran aurreikusitako esku hartzearen aldean?	Bai	Ez
Hala bada, zeintzuk izan dira aldaketen arrazoiak?		
Gauzatzeko epea gainditu al da?	Bai	Ez
Hala bada, zergatik?		

4.- Informatzen den aldian egindako jarduerak

Jarduerak	Datak / aldiak	Eragina defendatzailearengan eta/edo haren erreferentziako komunitatearengan

5. Arabako GKEak egindako esku hartzeari buruz egiten duen balorazioa

- 5.1. Esku hartzearen balorazio orokorra
- 5.2. Esku hartzeak artatutako defendatzailearen egungo egoera.
- 5.3 Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren esku hartzearekin lotutako eraginaren balorazioa



6. Etokizuna

GKEak aurreikusi al du esku hartze horri jarraipenik ematea?	Bai	Ez
Hala bada, nola?		

7. Hala badagokio, esku hartzeari lotuta erantsitako dokumentazioa

Dokumentua	Iturria	Data



II. FINANTZA TXOSTENA

1. KOADROA: LABURPEN OROKORRA

	Euro
Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren dirulaguntza, guztira	
Gastu justifikatua	
Esku hartze honetarako jasotako beste ekarpen batzuk	
Baterako finantzatzaileak	
Izena	Euro

2. KOADROA: TRANSFERITUTAKO FUNTSEN ZERRENDA

Tarteko dibisa erabili bada

Data	Bidalitako zenbatekoa eurotan	Zenbateko baliokidea tarteko dibisan	Dibisa/euro kanbio tasa

3. KOADROA: FAKTUREN ERREGISTROA

Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoak emandako dirulaguntzari egotz dakizkiokeen gastuak bakarrik

FAKTURA			ORDENA ZENBAKIA	BALIOA		
Kontzeptua*	Data	Dokumentu zenbakia		Tokiko moneta	Dibisak	Euro
1.Partida						
2.Partida						
GUZTIRA						

- Fakturak ordena korrelatiboan zenbakituko dira, 1etik hasita, eta zenbaki bakoitza "Fakturaren ordena zenbakia" zutabearen jarriko da, dagokion gastuaren deskribapenaren ondoan.
- Espainian egindako gastuak "Balioa eurotan" zutabearen bakarrik zehaztuko dira.
- Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoaren dirulaguntzari zeharkako kostuak egozten bazaizkio, kostu horiek ez dute gainditu behar diruz lagundu daitekeen proiektu osoaren zuzeneko kostuen % 10, eta ez dute justifikaziorik behar.



4. KOADROA: FAKTURARIK EDO EGIAZTAGIRIRIK ESKATU EZ ZAIEN GASTUAK

Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoak emandako dirulaguntzari egotz dakizkiokeen gastuak bakarrik

Partida edo kontzeptua	Data edo aldia	Zenbatekoa dibisan	Zenbatekoa tokiko monetan	Baliokidea eurotan
GUZTIRA				

Dokumenturik ez biltzeko arrazoiak

--

5. KOADROA: JUSTIFIKATUA, GUZTIRA

Eragiteko eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko Arabako mekanismoak emandako dirulaguntzari egotz dakizkiokeen gastuak bakarrik

	EURO	%
Egiaztagiriek justifikatutako guztizkoa		
Egiaztagiririk gabe justifikatutako zenbatekoa		
GUZTIRA		

6. KOADROA: JASOTAKO EKARPENEI EGOTZITAKO GASTUEN LABURPENA

KONTZEPTUA	BAM	Tokiko ekarpena	1. baterako finantzatzailea	2. baterako finantzatzailea	Euro guztira
TOTAL euros					

ADMINISTRAZIO AGIRIAK

Orri honetatik aurrera, erantsi administrazio agiri hauek:

- Egindako gastua justifikatzen duten fakturen zerrenda, zeharkako kostuen kontzeptuan gastatutaz ematen den zenbatekoa jasotzen duen GGKEaren ziurtagiria barne.
- GKEaren ziurtagiria, fakturarik edo egiaztagiririk gabeko zenbateko justifikatua esku hartzean erabili dela egiaztatzen duena.
- Kanpora egindako banku transferentzien kopiak eta/edo tokiko GKEaren ziurtagiria, jaso izana egiaztatzen duena.
- Dibisa tokiko monetara trukatzeko dokumentuen kopiak, ahal den guztietan.